

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Abenduak 27  
Larunbata  
Alea: 974  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Agustin Kardaberazi buruzko ihardunaldiak egingo dira astelehen eta asteartean

■ Jerardo Elortza, Joseba Zuazo eta Juan Madariagak hitz egingo dute ■ Bihar 12:00etan Agustin Kardaberaz jaio zen etxeen plaka bat inauguratuko dute, bera jaio zela 300 urte direla-eta.

AGUSTIN Kardaberaz idazlea eta jesuita jaio zela 300 urte betetzen dira eta, *Kardaberaz Oroitz* ihardunaldiak egingo dira astelehen eta asteardean. Eusko Ikaskuntzak eta Udalak antolatutako ihardunaldi hauek bi helburu nagusi dituzte: Kardaberazaren nortasuna ezagutzea, gure historiaren ondare inmaterial gisa eta hernaniarrak bere garaian eta gerora izan zuen eragina aztertzea, gaurko begiekin begiratuta.

Lehendabiziko hitzaldia astelehenean izango da Biterin, 19:00etan inaugurazioa egin ondoren. Jerardo Elortza Mondragon Unibertsitateko irakasleak Kardaberazaren garaiko kultura eta hizkuntzaren berri emango digu, arratsaldeko 19:15etatik aurrera.

Beste bi hitzaldiak asteardean izango dira. Arratsaldeko 19:00etan Joseba Zuazo EHUKO irakasleak emanago du hitzaldia *Kardaberaz, irragana berri, oraina zahar eta geroan zer?* 20:00etan, berriz, Juan Madariagak, Nafarroako Unibertsitate Pu-

blikoko irakasleak Kardaberazaren garaiko misioei buruz hitz egingo du *Las misiones populares en tiempos de Kardaberaz* da hitzaldiaren izenburua.

**Kardaberaz jaio zen etxea**  
Agustin Kardaberaz gaur egunean bere izena duen kalean jaio zen Hernanin, 25garen zenbakian hain zuen ere. Bihar plaka berri bat jarriko dute horixe adierazten duena. Ekitaldia, igandean eguediko 12:00etan izango da.

**Kardaberazaren urtea**  
*Euskeraren berri onak* liburuaren egilea jaio zela 300 urte diren honetan ekitaldi asko egin dira aurten. Euskaltzaindiak 2003a Kardaberaz urtea izendatu zuen eta Otsailean Hernanin egin zituen Barne Ihardunaldiak.

Azaroan Deustuko Unibertsitatean egun osoko ihardunaldiak egin ziren Kardaberazaren obra eta bizitzari buruz, eta *Euskeraren berri onak* liburuaren edizio kritikoa ere iragarri zuten. Az-




Aurten ekitaldi asko egin dira Kardaberazaren lana gogoratzeko.

kenik, bere jaioterrian eginago dira Kardaberaz eta bere lana gogoratzeko ihardunaldiak. □

## Errapia taldeak kolorez betetako festa egin zuen

ERRAPIA elkartea egin osoko festa egin zuen pasa den larunbatean Zikuñagako lokalean, Zikuzulon. Errapia taldeak Hernaniko artista ezberdinak sortutako taldea da eta festa lokalaren inaugurazioa egiteko antolatu zuten. Egun osoan era askotako ikuskizunak izan ziren Zikuñagan: txistulariak, musika kontzertuak, arropa desfilea, erakusketa, proiekzioak, eta abar. Antolatzailak adierazitakoaren arabera jende gehiena arratsalde partean izan zen eta festaren oso balorazio positiboa egin dute. □



Roberto Yaben larunbateko emanaldian, Zikuzulon.

**MURUA**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Larramendi 17 - 943 55 03 32  
20.120 - HERNANI

37 urtetik gora  
haragirk onena  
eskaintzen

**ETXEKO KUTXORRIK  
ONENAK ZURETZAT**



## MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berri ditzu bere instalazioak eta inauguratzen ditu. 1500 m<sup>2</sup> baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealekua, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia



## GARAJE ITXIA SALGAI

25m<sup>2</sup>. Izpizua Kalea 19.  
Prezioa, 29.000 euro.  
Interesatuak deitu:  
☎ 943-551026

## Afonia taldeak 'Bando Punk' fanzinea atera du

AFONIA taldeak kontzertua eskaini zuen pasa den astean Goiz Argi tabernan eta 'Bando Punk' izeneko fanzine berria aurkeztu zuten bertan. Fanzinea taldeko kideek eta inguruko lagunek egin dute eta punk eta rockaren inguruko musikei buruzko notiziak eta abar agertzen dira. Fanzinea euro batean dago salgai tabernetan. Afoniarekin batera *Valium Generation* taldeak jo zuen eta bi kontzertuetan jende asko egon zen entzuten eta dantzat. Kontzertuak Espesializazioaren aurkako ihardunaldien barruan antolatu zituzten. □



Aratz, Ijurko, Pepino eta Pitzi dira Afonia taldeko kideak.

### JASOTA BEZALA

Hernaniko Udal Kirol Patronatuko igerileku kosta monitora gara. Karta honen bidez salatu nahi dugu Udalak, eta konkretuki Iñaki Barrio jaunak, gure lan egoeraren aurrean daraman politika.

Urte askoan hilabeteroko kontratuak egin dizkigu Kirol Patronatuko. Hau da hilabetero 28 eguneko kontratuak egin dizkigu eta gainerako egunetan kontraturik gabe egon gara. Honen aurrean epaitegieta jo genuen igerileku langileek, kontratu fijoak egitea eskatzen. Sententzia gure alde atera zen. "Denbora partzialeko langile indefinituak" garela esan dute epaitegiak, guk eskatzen genuen bezala. Sententzia honen aurrean errekurtoa jarri zuen Kirol Patronatuko eta epaitegiak ez dute oraindik erantzunik eman. Guk egunean 3 orduko ikastaroak emateko kontrata daudagu eta eskatzen duguna da etenik gabeko kontrata izatea, 3 orduko kontratuarekin bada ere.

Abenduaren 16an despido karta jaso genuen eta Udalak (Barrio eta Costa jaunak) zera jakinarazi digu: 1) Sententzia gure aldekoa bada ere despeditu egingo gaituztela. Alegia,

inondik inora ez digitela kontratu fijorik egingo.

2) Kosteak merketzeko, subkontrata bat emango diotela igerilekuko zerbitzua. Gure aukera bakarra enpresa moduan aurkeztea da.

Guk gure eskubideak eta lan baldintza "txukunagoak" eskatzen genituen, baina, Udalak ez du epaitegiak sententzia betetzeko ere asmorik. Haientzako arrazoia da zerbitzua subkontratatzera merkeagoa dela eta hori ez da egia. Ondo daikigu denok politika horrek langileon egoera txartu besterik ez duela egiten. Ez dugu uste Udalarentzat hainbesteko kostua garenik eta zerbitzu duin bat eskaini nahi badu, jakin beharko luke bide hau ez dela egokiena.

**Ainhoa Makazaga, Idoia Zubeldia, Mirari Goizueta, Monika Porto, Mikel Fernandez. Kiroldikiko Igerileku langileak.**

#### Bizitza, festa eta gauza gehiago

Zoriontsu izan ginen pasa den larunbatean eta ondorioz humanoen modura erreakzionatu dugu: goxo dauzkagu barruak, irrifartsu adorea eta une hauxe aprobetxatu

nahi genuke esker oneko garela adierazteko. Eskerrak beraz larunbateko jaia posible egin duzuen guztiei, bixitari, teknikari, artista, juergista eta martzianoei.

Bizitza elkarkidetzaren ondorioa da eta joan den larunbatean Zikuñagako arte tailerrean gertatutako hori besterik ez zen izan, bizitzaren adierazpen bat. Halako gehiago behar ditugu herritarrak, nahikoak eta bi soportatu behar izaten bait ditugu eta egunero egunero. Gutun hau aprobetxatu nahi dugu ere Mila Apezetxeari eskerrik adierazteko. Milaren eginkizuna pertsona batzuren adierazpen beharrak erraztea izan zen. Hori, edozein herri ordezkariren egin beharra da baina ez da hori edozein herri ordezkariren jarrera.

Hernaniarrei jakin arazi nahi genieke Errapia taldeko kideak lanean ari garela eta Millari esan, behar genuela bere bitartez eskratutako aretoa. Sormenari bide eman ezkerro emaitzak etorriko dira eta etortzen dira. Seguru. Bale orangoz.

**Gorka Setien, Errapia taldearen izanean**



**ONDOJAN - ERAMATEKO JANA** Antziolan  
Oilasko erreak enkarguz, etxeko sukaldaritzarik, prestatutako janaria, txarkuteria,...

**IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK**

**ondojan**  
Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani



### Antziola-Motor Salmenta eta tailler zerbitzua



#### Ford Mondeo

- 3 aukera ezberdin, gusto ezberdinentzat:
- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

**Etorri, ikusi eta  
aukeratu.**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

# Telemar

Itxastele, S.L.



Pack Activa 135,95 euro  
(46 euro deietan)

Estrena plana 89 eurotik  
+ 30 euro errekarga doain

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Igande eta jaiegunetan  
dantzaldia, 19,30etatik

OIALUME BIL TOKIA  
Oialume auzoa  
943 55 29 38

### HITZ BITAN

#### ✓ ONGINTZA

##### Bildu Hernanik zorionak eman dizkie langileei.

Bildu Hernanik Ongintzako langileen inguru sortutako auziaren balorazioa egin du eta zorionak eman dizkie egindako lanarengatik: "Ongintzako langileei eta espresa komiteari beraien lana eta protestaldie esker Amonarrazia Jaunak bere asmoetan atzera egin duelako" adierazi du Bildu Hernanik. Hala ere, adierazi du 2004-rako onartutako ordutegia aurretik zegoena baino kaxkarragoa dela eta salatu nahi izan du agintariekin jarritako protesta pankartak kentzeko agindua eman izana. Azkenik Bildu Hernanik ordezkaritzar politikoa ez edukitzea salatu du, "lapurketa polikoaz baliatuz hainbat neurri atzerakoik sartzen ari direla agintariak" adierazi du. □

### ESKERTZA

#### Juana Lopez Sasberro

Abenduaren 16an hil zen 75 urte zituela



Juanaren senitartekoek eskerrak ematen dizki-zuegu modu batera edo bestera gurekin izan zaren guztilo, eta zuen laguntza eta babesa eman diguzuen denoi. Eskerrik asko.  
Juanaren familia

Hernanin 2003ko abenduaren 27an

### LURTEURRENA

#### Joxe Joakin Mendiluze Lekunberri

"Joxetxo"

2002ko abenduaren 17an hil zen



**Zu joan zinen  
baina zure irrifarra  
beti izango da gurekin**

Urtebetetze meza, bihar, igandea, abenduak 28, goizeko 12:30etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2003ko abenduaren 27an.

### LURTEURRENA

#### Isabel Albistur Adarraga

2002ko abenduaren 27an hil zen, 91 urterekin



Haren senarra: Jose Zapiain; seme-alabak: Bixen eta Laureano; bilobak: Josetxo eta Pili, Eli eta Andoni; birlobak: Axier, Ixtxar, Julen eta Iñigo; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek, bihar, igandean, bere alde burutuko den origari mezara gonditzen zaituzte.

Urtebetetze meza, bihar, igandea, abenduak 28, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea, parroki elizan.

Hernanin, 2003ko abenduaren 27an.

### LURTEURRENA

#### Jon Mujika Iparragirre

*Udazkeneko koloretan,  
udaberriko euritan,  
neguko hotzetan,  
udako argipean,  
gure artean izango zara beti..*

Zure senideak



Urtebetetze meza, bihar, igandea, abenduak 28, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea, parroki elizan.

Hernanin, 2003ko abenduaren 27an.

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- Gauez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

#### GAUR 16:00ETATIK AURERA.

#### ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Matxin IV-Agirrezabala / Uterga-Jon
2. partidua: Iñigo-Aizpuru / Agirresarobe-Lekunberri
3. partidua: Bereziartua-Auzmendi/Sarasua-Etxeberria
4. partidua: Iribarren - Urko / Juaristi - Badiola